




JAIONE OLAZABAL ▶ ABESLARIA


## «Bakarlarien artean maila altua izan da aurtengo txapelketan»

**ARESO** ▶ Nafarroako Kantu Txapelketako finalean, bakarlarien sailean, lehen postua lortu berri du

**FINALA** ▶ «Irabaztea ez nuen espero, baina ez nuen neure burua hain gaizki ikusi», adierazi du ▶ 4



Jaione Olazabal. HITZA



## Kalean Zubeldia eta Agirreren lanak

**TOLOSA** ▶ Herenegun aurkeztu zituzten Errota haur liburutegian Asier Agirre tolosarrak itzuli duen Zarko Petan idazle eslobeniarraren *Aforismoak* eta Iñaki Zubeldia ikaztegi-tarraren *Haur literatura aztergai* liburuak. *Aforismoak*-en umore fina topa dezakegu, eta *Haur literatura aztergai* liburuan, berriz, «haur eta gazte literaturaren eremura egindako inkurtsioak». ESTI EZEIZA ▶ 3

**ALEGIA** ▶

**Txintxarri Egunean egin dituzten kontzertuak, jendetsuak**

Azaro Kulturala amaitzear denean, gaur 'Erreleboa' antzezlan ikusgai Kultur Etxean ▶ 5

**TOLOSA** ▶

**AHTren obren aurkako erresistentzia egiteko deia**

Autobusak antolatu ditu Tolosaldeko AHT Gelditu! elkarlanak Urbinara joateko Triangulo plazatik ▶ 3

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** ▶

**Emakumeenganako indarkeria salatzeke ekitaldi ugari** ▶ 2

**BIHAR Zinema Etxean 2**

**mantagorri** reklin

**8 DVD euskaraz**

**+ 4,50 €**

**berria**

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

**Euskal Herriak autodeterminazioa**

**Ekitaldi politikoa**

**Azaroak 25 18:00tan**

Villabonako Gurea zine aretoan

## POLITIKA ▶


**Elkarretaratzeak  
deitu ditu gaurko  
Etxaratek**

Ettxaratek deituta, gaur hileko azken ostirala izanik, elkarretaratzeak egingo dituzte bi eskualdeko herrietan eta ohiko lekuetan, «euskal preso politikoen eskubideen alde». 19:30ean, Alegian, Amezketan, Anoetan, Ibarrran eta Tolosan elkartzeko dira. 20:00etan, berriz, Adun, Asteasu, Ikaztegi, Leitzan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilengatik egingo dute elkarretaratzea.

## POLITIKA ▶

**«Jazarpen egoera»  
salatzeko Segiren  
manifestazioa**

Tolosaldeko Segi gazte erakundeak Ordiziako plazatik gaur 19:00etan abiatuko den manifestaziorako deia luzatu du. «Segiren gaineko jazarpena salatzeko eta konponbide demokratikoaren alde» egitea du helburu ekitaldiak. *Independentzia eta sozialismoa, segi borrokan segi antolatuntzan* izango da manifestazioaren leloa.



**Salgai (Tolosa)** lurrarendi auzoan etxe zoragarria. 5 logela, 3 bainugela, sukalde osatua eta oso polita. Garaje bikoitza eta itxia. Lorategia ere badu. **Salgai (Donostia)** Berriyo. Apartamentu apaina dena kanpoaldera begira. Lorategia 47m2. Garajea eta trasteroa. **Salgai (Tolosa)** Aparta. Gernikako arbolan. 93m2. Garajea aukeran. **Salgai (Tolosa)** Alde zaharrean 50m2 eraberritua estreinatzeko. Aparta. **Salgai (Araun)** San Martin. 60m2. Eraberritua estreinatzeko. 27.400.000 pza. **Salgai (Ibarra)** 90m2. Eraberritua estreinatzeko. Kalitatezko materialekin egina. **Salgai (Tolosa)** lurrarendi kalean pisu polita. 60m2. 2 logela, egongela, sukalde osatua, bainugela eta 20m2ko terraza. Oztoporik gabe. **943 6971 96 • 675 705 268**  
Korreo Kalea 50

## GIZARTEA ▶

**Emakumeenganako  
indarkeria salatzeko  
hainbat ekitaldi**

Indarkeria mota horren aurkako eguna da bihar eta Tolosan, Leitzan, Anoetan eta Iruran izango dira ekitaldiak

IMANOL GARCIA

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da bihar. Horren harira hainbat herritan ekitaldiak antolatu dituzte egoeraren berri eman eta indarkeri mota hori salatzeko. Tolosan, Leitzan, Anoetan eta Iruran egingo dituzte ekitaldiak.

Tolosaldeko Bilgune Feministak elkarretaratzea antolatu du biharko, 13:00etan, Tolosako Triangulo plazan. Deia zabaldu die herritarrei bertan parte hartzeko.

Tolosako Udalak ere antolatu ditu ekitaldiak biharko. 19:00etan elkarretaratzea deitu du udaletxe aurrean. Horren ondoren, Tik Tak antzerki taldeak antzezlan labur bat emango du, *Ez nazazu joizenekoa*. Bertan, ama bat eta bere semearen arteko harremana islatuko da.

Biharko egunean ere antolatu dituzte EKK eta Gazte Asanbladak ekitaldiak Leitzako

Leitzan emango duten *Te doy mis ojos* filmaren irudia. HITZA

Gaztetxean. 17:00etatik 18:00etara emakumeenganako indarkeriaren aurkako proiektzioak emango dituzte. 18:00etan *Te doy mis ojos* filma ikusteko aukera izango dute eta ondoren kafe tertulia egingo dute.

Anoetako eta Irurako Udalek datorren asterako antolatu di-

tuzte ekimenak. Hilaren 30ean, osteguna, *Nola kontatu ipuin ez sexistak* emeei taller praktiko egingo dute 17:15etik aurrera Anoetako ikastolan. Abenduaren 1ean, ostirala, zine-foruma egingo dute. *Emakumeak eta beren autonomia: sententzioak eta sentimenduak* gaiaren inguruan. Dokumental

labur bat proiektatuko dute, eta gero solasaldia egingo dute, gaian adituak diren pertsonekin. Azkenik, *Trebetasun sozialak: aldatetako eta erronkak emakumeen bizitzan* ikastaroa antolatu dute abenduaren 11, 13, 18 eta 20an. Bi orduko saioak izango dira, arratsalde. Izen-ematea abenduaren 4a baino lehen egin behar da, bost euro ordainduz. Irurako edo Anoetako udalek txetan.

**Deklarazio instituzionalak**

Tolosako eta Villabonako Udalen Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna buruzko deklarazio instituzionala onartu dute. Testuak dioenez, «Emakumeenganako indarkeriaren definizio berriari esker, azken urteotan funtsezko aldaketa izan da; izan ere, zenbait emakumek jasandako tragedia pertsonal gisa eta, beraz, tragedia pribatu gisa hartua izatetik, drama sozial legez identifikatzen ari da, giza eskubideen urraketara onartezina».

Indarkeria hori «emakumeen desberdintasunean oinarritutako ordena sozial baten adierazpena dela» azaltzen du onartutako testuak. Besteak beste, deklarazioaren baitan, Udalek «bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko».

**iragarki laburrak ▶****IKASTETXE PUBLIKOAK****Langileak behar dira.**

Garbitzaileak, sukaldariak, sukalde laguntzaileak eta atezainak behar dira. Telf.: 943 44 10 05.

**UDALETXEETARAKO****LANGILEAK**

**Hainbat lanpostu.** Lorezainak, elektrikariak, igeltseroak, operarioak, gidariak eta peoiak behar dira. Telf.: 943 44 10 05.

**ZAINDARIAK****Museo eta artxiboetarako.**

Zaindari lanpostuak daude. Telf.: 943 44 10 05.

**BEZERO ARRETA**

**Aireportuetan.** Lanpostuak daude betetzeko bezeroen arreta sailean. Telf.: 943 44 10 05.

**LASTER DEIALDIK**

**Lanpostu deialdiarako prestakuntza.** Suhiltzaileak, udaltzainak eta ertzainak prestatzeko dokumentazioa eta klaseak. Telf.: 943 44 10 05.

**ADMINISTRAZIO****PUBLIKORAKO DEIA**

**Plaza hutsak daude.** Laguntzaile, administratiboak, liburutzaileak, harreragileak, telefonistak eta informatikariak. Telf.: 943 44 10 05.

**HEZKUNTZA MINISTERIOA****2/06 Lege Organikoko lanpostu****deialdiak daude laster.**

Haurtzaindegia, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza. Telf.: 943 44 10 05.

**ELBARRITUAK**

**Lanpostuak.** Lanpostu libre finkoak daude. Telf.: 943 44 10 05.

**OSAKIDETZA**

**4.000 plaza libre.** Erizain laguntzaileak, geriatría laguntzaileak, zaindariak eta laborategiko laguntzaileak. Telf.: 943 44 10 05.

**GIDARIK**

**Lanpostu finkoak.** Gidariak behar dira lanpostu finkoak betetzeko. Telf.: 943 44 10 05.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**hilberriak ▶****Juan Arruti Etxabe**

Aitona maitea nahiz eta gure arteetik urrutira joan, betiko izango zaitugu hurbilean, gure bihotzean



Zure bilobak eta birlobak

**OHARRA:** Hileta elizkizunak gaur egingo dituzte, Zarauzko Parrokian, 19:00etan

**ZARAUTZEN,** 2006eko azaroaren 24a

KULTURA ▶

# Kalean dira Zubeldia eta Agirreren lanak

Zarko Petanen 'Aforismoak' liburuaren itzulpena eta 'Haur literatura aztergai' lanak aurkeztu zituzten Errotan



Iñaki Zubeldia eta Asier Agirre, herenegun, liburuen aurkezpenean. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Egan argitaletxearen bi liburu aurkeztu zituzten herenegun iluntzean Errota haur liburutegian. Alde batetik, Zarko Petan idazle eslobeniarraren *Aforismoak*-en itzulpena. Eta beste-

tik, Iñaki Zubeldia ikaztegieta-rraren *Haur literatura aztergai* liburua. Lehenengo aipatutako liburuaren euskarazko molda-keta Asier Agirre tolosarrak egin du.

Agirrek aurkezpenean Zarko petanen lanaren inguruko xe-

hetasunak azaldu zituen. Bere esanetan «liburu honetan agertzen diren aforismoak ez dira itxiak, nahiko ulerterrazak dira. Dena den, zeharkako mo-dua erabiltzen du gauzak esateko, eta politika kutxua dute. Umore fina ere erabiltzen du

idazleak, eta esandako gauze-kin pentsarazi egiten du». Euskararako moldatzaileak «patsadan» egin du bere lana, ongi pentsatu egileak benetan zer esan nahi duen. Tolosarraren ustetan «sakontasuna eta sin-pletasuna ederki uztartu ditu Zarko Petanek», eta berak itzulpena egiteko garaian, esaldien zentzua mantentzen saiatu da. Bestalde, euskarak musikallitate egokia eta puntuazioarekin jokatze aukera eman dio tolosarrari.

Iñaki Zubeldiak bere liburu berriaren lehenengo orrietan honela deskribatzen du bere lana, «liburu hau ez da literaturari buruzko tratatu bat, ez eta gai horri buruzko azterketa sakon eta orokor bat ere. Gehiago dira haur eta gazte literatura-remura egindako inkurtsioak». Bertan, haur literatura, hizkuntza, irakurzaletasuna... aztertzen dira, eta zenbait gogoeta, elkarrizketa eta iritzi kritiko eskaini. *Haur literatura aztergai* liburua hamahiru kapitulu-tan banatua dago, eta kapitulu bakoitza lehenago ere irakurtzeko aukera izan da *Egan* aldizkarian atera baitira. Hala ere, gaurkotasuna mantentzen du obrak.

GIZARTEA ▶

## AHTren obren aurkako erresistentzia gaur, Urbinan

Hara joateko asmoa dutenek, Tolosako Trianguloan dute hitzordua, 15:30ean

E. EZEIZA

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak deialdi berezi bat egin nahi die Euskal Y-aren aurka dauden Tolosaldeko herritarrei, sektore sozial, sindikal eta politikoei AHTren obren hasieraren aurrean inplikazioa handitzeko eta indarrak biltzeko.

«Urbinan obren aurkako erresistentzi gune bat abian da eta gaur, Tolosaldearen txanda da». Hara joateko 15:30ean irtengo da autobusa Tolosako triangulotik. Plataformakoek esanetan, *AHT ez gune* honen helburua lanak salatzea, oztopatzea eta geldiaraztea da. Baita AHTren aurkako oposizioa indartzeko eta aurrera begirako borroka sendotzeko topalekua sortzea ere.

Igandean berriz, 10:00etatik aurrera mendi martxa egingo dute Itsasondotik Ordiziara. 12:00etan manifa izango da, Ordiziatik Itsasondora eta 14:00etan, herri bazkaria. Hona joan nahi duenak Beasaingo Arañon, Ordiziako Herriko edo Itsasondoko Nautikon erosi beharko dituzte, zortzi euroren truke. Aste honetako ekitaldiei amaiera emateko, astelehenean, Tolosako Kultur Etxean bilera egingo dute 20:00etan. Bileran honekin, «mobilizazioa indartu» nahi dute eta benetako informazioa gizarteratzeko erronka bihurtu. Haatik, ahalik eta jende gehienak parte-hartzeko deialdia luzatu nahi dute elkarlanean.

POLITIKA ▶



## Urteurrenaren beste zentzu bat

E. Ezeiza ▶ Berrogeita hamar lagun inguru bildu ziren herenegun Udaletxean, Antton Izagirre Tolosa Bizirik herri plataformako kidearen mintzaldia entzuteko. Honek, Udalbiltzak 750. urteurrenaren inguruan egiten duen irakurketari buruz hitz egin zuen. I. GARCIA

MUSIKA ▶



## Santa Zezilia omenduz, kalejira

E. Ezeiza ▶ Santa Zeziliaren, musikariaren zaindariaren omenez, kalejiran ibili zen herenegun iluntzean Tolosako Banda. Ospakizunekin jarraituz, igandean kontzertu berezi bat izango da, 11:30ean Leidor antzokian. I. GARCIA

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

### Manolo Mendizabal Sardiña

2006ko azaroaren 16an hil zen

Herri guztietan izaten dira herriari izaera berezia ematen dioten pertsonak Iruran, zu zintugun horietako bat. Pertsona ona zinen, Manolo, aprezio berezia sentitzen genuen zugan Orain, aldiz, hutsunea nabaritzen dugu gure barnean. Urtao guztietan joaten zinen Loatzo eta Uzturre aldera, baina udazkenak eskaintzen zizkizun zuretzat hain preziazak ziren gibelurdinak. Eta udazkeneko haizearekin joan zara betirako. Baina badakit datozen udazken guztietan, haizea dabilen egun horietan, Loatzo mendierain magalean izango zaitugula gibelurdinak biltzen haizea lagun duzularik



Bihotz bihotzez muxu eta besarkada handi bat, Manolo.

Otaño sendia

IRURA, 2006ko azaroan

urteurrena ▶

### Pili Mujika Mujika

Joan zara, baina gure artean izango zaitugu beti



Oroimen meza igandean, azaroaren 26an, izango da, Alegiko San Joan Bataiatzailearen elizan, goizeko 11:15ean.

Zure lagunak

## ZINEMA ▶

## ‘Caterina Erromara doa’ film italiarra gaur ikusgai



Filmaren kartela. HITZA

N. GARZIA

Astero bezala, gauer gaueko 22:30ean *Caterina Erromara doa* filma botako dute, eta igandearen beste behin, 19:30ean.

Pelikulak bere familiarekin Erromara bizitzera joango den neska baten istorioa kontatzen du. Caterinaren nahasmenean, bere eskolako hainbat kide erakarriko ditu, bi bereziki: Margherita eta Daniela. Bakoitzak, bere izaeraren laguntzarekin, zerbait ezberdina eskainiko dio Caterinari, honek bere aitarren pisua gainean sentitzen duen une batean.

Caterinaren bitartez, Erromako politikoa eta intelektuallak kritikatu ditu filmak.

## JAIONE OLAZABAL ▶ ABESLARIA

## «Bakarlarien artean maila altua izan da aurten»

Kantu Txapelketako finalean Jaione Olazabal lehenengo gelditu da bakarlarien modalitatean

NAIARA GARZIA

Larunbatean Lekunberrin ospatu zen Kantu Lehiaketaren finalean, bakarlarien modalitatean, Jaione Olazabal aresoarrak irabazi zuen lehenengo saria, ustekabean irabazle bihurtuz.

**Txapelketetan parte hartzen noiz hasi zinen?**

Egia esanda ez dut oso segidan parte hartu, batzutan umeekin parte hartu dut, talde bezala. Leitzako koruarekin ere kantatu izandu dut, gero bikote moduan ere bai... hiruzpalau aldiz hartu dut parte.

**Bakarlari bezala kantatzen zenuen lehenengo aldia al zen?**

Ez, beste batean ere aritu nintzen.

**Txapelketako finalean oso urduri jarri al zinen?**

Finalen bai, oso urduri ere ez, baina pixka bat bai. Finalurrean, berriz, ongi, baina, beti iza-

ten da urduritasun puntu bat, ohituta egon arren eta urte asko kantatzen eman arren.

**Zerorrek konposatutako abesti batekin irabazi duzu lehiaketa. Zer moduzkoa izan da esperientzia?**

Konposatzen dudun lehenbiziko kanta da, hasieran txapel samarra iruditzen zitzaidan, baina tira...

**Txapelketa honetan bakarlari bezala abestu duzu. Zer moduz sentitu zara?**

Gustora. Orain arte beti akordeoia joaz kantatu izandu dut, baita aurreko txapelketetan ere eta instrumenturik gabe kantatu nahi nuen, bestela burua bietan baitaukazu eta ez da gauza bera. Unai eta Jon prest zeuden jotzeko eta ni, pozik.

**Beste abestiren bat konposatzeko asmorik ba al duzu?**

Ez, momentuz zerbait puntuala izandu da. Zerbait ateratzen zen edo ez probatzeko gogoia neukan, ez dakit gero ere besteren bat aterako zaidan edo ez...

**Finala irabaztea espero al zenuen?**

Irabaztea ez nuen inoiz pentsatu. Finalurrean beste bakarlariaren bat edo bazen, baina nik ez nuen neure burua hain gaiz-



HITZA

ki ikusi. Baina finalean bakarlari dexente zeuden.

**Bakarlarien artean zegoen maila altua al zen?**

Bai, nik pentsatzen nuena baino altuagoa. Lehengo urtean eta aurrekoetan ezagutzen nituen, baina aurten ez nuen inor ezagutzen, Leitzatik aurkeztu zirenak soilik, taldeka eta binaka. Aurten bakarlarien artean maila handia izan da.

**Beste txapelketaren batean parte hartzeko asmorik ba al duzu?**

Ni euskal kantekin aritzen naiz eta txapelketaren bat edo topaketaren bat egongo balitz, gustura joango nintzateke, baina ez dago aukera handirik. Nafarroan hori da estilo horretan antolatzen den txapelketa bakarra. Koruarekin beste batzuetara aurkeztu izandu gara, baina beste istorio bat da. **Zer da zuretzako musika, zer leku betetzen du zure bizitzan?** Zelaetan bat da, oso zaila baita musikatik bizitzea.

## BERRIaren upeletik ardo aparta

REMELLURI 2001. urteko ERRESERBAko ardoa

Zuretzat edo nahi duzunari oparitzeko!

Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura: - Zure etxera.  
- Oparitu nahi diozun lagunaren etxera edo lantokira..



3 BOTILAKO KUTXA 6 BOTILAKO KUTXA  
39 € 78 €

ESKAERA EPEA:  
azaroaren 27a arte  
ESKAERAK EGITEKO:  
943 30 43 45

BIDALKETA GASTURIK GABE

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



Poiki-poiki eta modu naturalean egindako ardoa, haritzak onena erabiltuz; azken batean, benetako châteaueko ardoa, zapora fresko eta iraukorrekoa, bouquet handi eta oparilea.

**‘ZURE UMEEN DENDA’**  
sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak  
zakuak • maindireak • ohe estalkiak  
BUGABOO • BEBECOMFORT • QUINNY • INGLESINA  
BEBECAR • JANE • MAXI-COSI • CASUALPLAY • STOKKE  
San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

**LIZARBI**  
Kutsa, mahai, nahi etah.  
Altxariak - Zurgintza orokorra  
Tolosaldea eta Leizaldea  
San Frantzisko, 39 • TOLOSA  
Tel./Faxa: 943 65 22 38

**LOGOPEDIA ZERBITZUA**  
Ebaluazio, diagnostiko eta tratamendu logopedikoa  
• Artikulazio arazoak • Irakurketa-idazketa arazoak  
• Hizketa arazoak • Irensketa ez-ohikoa  
• Hizkuntza atzerapenak  
tel.: 639 24 06 54 **ALEGIA**

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**  
Inkesta. Zer gai jorratuko zenituzke Hitzan?

**NE** Nekane Caballero Lda Col 3429  
■ Aholkularitza juridikoa: zibil, penal eta administratiboa  
■ Higiezinen zerbitzuak  
Andia kalea, 1 • TC 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 11 82 82

**KONTSU TABERNA**  
Asteburuko menua  
Plater konbinatuak  
Astearreak ibitza  
Orexa • 943 68 21 54



ALEGIA ▶ KULTURA

# Txintxarri Egunean eginiko kontzertuak «jendetsuak»

Azaro Kulturala bukatzeko azken egunetan 'Erreleboa' antzerki saritua eta argazki erakusketa berria izango dira

NEREA URBIZU

Alegiko eliza jendez bete zen joan den igandean Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek eskaini zuten kontzertuan. Txintxarri Egunaren barruan urteroko emanaldia eskaini zuten Txintxarri Abesbatza Kultur elkarteok. Lukas Guridi apaiza eta musikagilea izan zuten gogoan, 100 urte jaio zela oroituz.

Meza nagusian kantatuz hasi ziren Txintxarri abesbatzakoek Mariaje Rekondo alegiarra organoan zela. Alegian hainbat urtetan apaiz izandako Lukas Guridi azpeitiarrak konposatutako mezarekin ekin zioten, hain zuzen. 25 haur eta gaztez osatutako Txintxarri Txiki abesbatzak, berriz, Idioia Iraolaren zuzendaritzapean kantatu zuten. Mariaje Rekondo aritu zen pianoan eta «diziplina han-



Txintxarri txiki abesbatzak ere elizan egin zuen emanaldia. HITZA

diz» zuzendu zuen korua Garbiñe Orbegozo alegiarrak.

«Kontzertu borobila» izan zen: abesbatzak gogora ekarri zuten 1985ean Alemaniara egindako bidaia. Han musikari gisa Xabier Sarasola ere aritu zen; Txintxarri abesbatza sortu eta urte askotan zuzendu zuen. Kontzertuaren bukaera «txalo

zaparrada handia» jaso zuten Xabier Sarasolak eta Joxe Gastesik. Txintxarri abesbatzakoek «bihotzez» eskertu zuten bidaia hartako bi protagonistak kontzertura etorri izana.

Bestalde, Txintxarri Egunaren bigarren zatia bazkariarekin hasi zen. Txintxarri elkartean 70 lagun elkartu ziren eta

kantari jarraitu zuten. «Nabarmentzekoa da elkarte horretako kideek egin duten lana eta ahalegina bazkaria prestatzen», eta hori dela eta, Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Txintxarri elkarteari.

Azaro Kulturalak antolatutako David Aprea debatarren argazki erakusketa ere izango da astelehenetik aurrera, Kultur Etxean. Bertan, *Idi probak* izeneko erakusketa ikusi ahal izango da. Hau ikusteko abenduaren 5a izango da azken eguna.

'Erreleboa' antzezlana

Azaro Kulturala amaitzeaz da, beraz. Gaurkoan, antzerkia izango da Kultur Etxean, 22:30etik aurrera, Txaloren *Erreleboa*, hain zuzen. Ernesto Caballeroren obra hau Begofia Bilbaok zuzentzen du. Soldaduska egiten ari diren bi adiskideren istorioa da, Iker Galarza eta Joseba Usabiaga aktoreek antzeztuko dutena.

GAZTELU ▶

## Fantasia eta beldur gaupasa elkartean

MADDI SOROA

Gazteluko herriko elkarteak Fantasiako eta beldurrezko gaupasa antolatu dute bihar gaueko gazte eta helduentzat. Ezusteko film laburrak eta filmak izango dira ikusgai bertan Tinieblas eta Jose Luis Rebordinosen eskutik.

Film laburren emanaldia iluntzeko hamabietan hasiko bada ere, bederatzietako aforiarekin ekingo zaio beldurrezko gauari. Ikusizunoren ondoren, berriz, txokolatada izango da goizaldeko seirak aldean. Antolatzaileek, «austriar izanez gero» gaupasan parte hartzeko deia luzatu dute.

ALEGIA ▶

## Kadete eta nesken derbiak bihar jokatuko dituzte

N. URBIZU

Bihar jokatuko dituzte Intxurre taldeko futbolari eta areto futbolari guztiek partidak: neskek Alegian, 19:00etan, Laskorain aurrez aurre.

Lurraldekako mailan dauen mutilek Texas taldearen aurka 17:15ean jokatu dute. Jubenilek, aldiz, etxean jokatu dute Lazkaokoena kontra, 15:30etik aurrera. Kadeteen mailako partida Tolosan jokatu da Tolosa B-ren aurka, 12:30ean. Mutilen taldeek bi gol sartu zituzten aurreko asteburuan eta garaipenak eta berdinketak lortu zituzten. Neskek 12 gol sartu zituzten.

TOLOSA ▶ PILOTA

## Barriola gustura etziko lehiari begira

**Erredakzioa** ▶ Lau t'erdiko finalurrekoa jokatu dute Beotibarren Barriolak eta Olaizolak etzi. Hala, atzo egin zuten pilota aukeraketan, leitzarra gustura azaldu zen; «pilotak gustatu zaizkit, jolasteko dira; nireak behetik ibiltzen dira, eta Aimaurrenak motelagoak dira». 104,3 eta 104 kilokoak aukeratu zituen Barriolak, eta 105,8 eta 105,5ekoak Olaizolak. M. S.





# FOTO

# depilazioa

5 sesiotako bonoa erosi ezkeror  
Afterlaserra lortuko duzu

**DOAN**

Baliozko promozioa  
azaroaren 21etik  
abenduaren 3arte

Basoak  
**140€**

Basoak  
**55€**

izierondoak  
**85€**

**Shuyana Edergintza** • Tel.: 943 67 54 89 • Eskolapioetako Lorategiak, 3 - 1A • TOLOSA

MUNDUKO PILOTA TXAPELKETA ▶

# Onenen artean

Eskualdeko sei pilotarik Mexikon jokaturiko Munduko Pilota Txapelketan parte hartu zuten, lau modalitatetan urrezko bat eta zilarrezko hiru domina lortuz; bertan bizitakoak azaldu dizkigute

I. GARCIA - M. SOROA

Mexikon burutu zen iragan iraillean lau urtez behin jokatzeko den Munduko Pilota Txapelketa. Bertan izan ziren eskualdeko sei lagun, Espainiako selekzioarekin lehiatzen: Joxi Lope-tegi eta David Vinuesa xare

jokalari irurarrak, Asier Mintegi eskuz binakako pilotari lizartzarra, Anoetako Maider Mendizabal eta Berastegiko Itxaso Urkizu paleta gomazko jokalariak eta Igor Odriozola zesta punta jokalari anoetarra. Saio bikaina eginda bueltatu dira etxera, parte hartu duten

lau modalitatetan urrezko domina bat eta zilarrezko hiru ekarri baitituzte.

Munduko Pilota Txapelketan modalitate bakoitzeko taldeak lau kidez osatzen dira eta horietatik zeinek jokatzeko duen partida bakoitzean erabakitzen du hautatzaileak. Horrela,

sei pilotariet txapelketan zehar parte hartu bazuten ere, denek ez zuten finala jokatzeko izan. Hala ere, lorpenak taldean eskuratutakoak direla azaltzen dute pilotariet.

Esperientziari dagokionez, oso aberasgarria izan dela dio-te. Alde txarrak izan ditu baita

ere lehiaketak. Alde batetik, antolakuntza. Bestalde, Mexiko DFren garaierak eta hango jakiek ez zieten beren maila onena ematen lagundu. Etxera bueltan, bakoitzak bere modalitatean jarraitzen du, egunerokotasunean, dominak eskuratzeko lehia aritu eta gero.

ASIER MITEGI ▶ ESKUZ BINAKAKO PELOTARIA

## «Hemen erregeak bezala bizi garela konturatu naiz»

Ilusioz joan eta ilusioz itzuli da Asier Mintegia lizartzarra Munduko Txapelketatik urrezko domina eskuan duela.

**Zer moduz txapelketa?**

Antolaketa aldetik oso gaizki, hara iritsitakoan konturatu ginen gauzak ez zeudela ondo prestatuta, ez genuen frontoirik eta ez genekien noiz jokatuko genuen. Partiduei dagokionez, ligaxka eta finalurrekoa jokatu nituen eta erraz irabazi genituen biak 22-4koarekin Frantzia eta Estatu Batuen aurka. Partidak jokatu genituen herriak 2.200 metrotako garaiera zuen arazoak izan geni-

tuen arnasa hartzerakoan, gainontzekoan, ordea, ondo joan zen dena.

**Finala jokatzeko gogoz geratuko zinen.**

Apur bat penaz geratu nintzen, ongi prestatua nengoela uste baitut. Bi pelotariak maila beretsuan geunden eta hautatzaileak besteak jokatzera erabaki zuen azkenean.

**Zer moduzko esperientzia izan da?**

Munduko Txapelketa batera joaten nintzen lehenengo aldian izan da eta oso gustura nago, oso esperientzi ona izan da. Jende asko zegoen fron-



MADDI SOROA

toian eta ikusmira handia sortu zen. Horrek gauza asko ekartzen dizkizu burura, urte osoko lana, esfortzua... lanak merezi izan duela, alegia.

**Ezberdintasunik nabaritu duzu beste lurraldetako pelotariengan?**

Pilotaren inguruan ez dut aldeirik somatu, baina bizitza pertsonalean guztiz ezberdinak garela konturatu naiz. Gu erregeak bezala bizi gara hemen, baina beste batzuk biziraute dihardute. Esaterako, Kubako selekzioa 6 pilotari, txapelke-

ta jokatzeko ari zirela alde egin zuten bizimodu hobea baten bila. Harriritu geratu ginen gertatutakoarekin.

**Lizartzar bat espainiako selekzioan.**

Jende asko esaten dit hori eta pilotariok presio handia daukagu gai horrekin, euskal kirola delako. Futbolari edo birrindulari bat, esaterako, Espainiako selekzioarekin joaten denean, ordea, ohore bat da. Niri ez badidate euskadiko selekzioarekin jokatzeko aukerarik ematen eta espainiakoarekin Munduko Txapelketa joateko aukera baldin badut, zer egingo dut ba?

**Nola duzu denboraldia?**

Madrilgo Club Pelota Madrilekin daukat fitxa. Orain entrenatzen nabil, martxoaren amaieran klubaren arteko txapelketa jokatzeko, gero federazioen arteko jokatu dut eta uztalean Europakoa. ◀

IGOR ODRIOZOLA ▶ ZESTA PUNTAKO JOKALARIA

## «Kirol arloan ez nintzen gustura gelditu, ez nuen nire jokoak erakutsi»

Igor Odriozola anoetarra bigarren aldiz joan da Munduko Txapelketa batera. Aurrekoan zilarra lortu zuen eta oraingoa urtearen bila joan zen, baina ez zen posible izan.

**Ez da lehenengo aldian Munduko Txapelketan.**

Bigarren aldian izan zen. Lehenengo aldian iruñan jokatu nuen, orain lau urte. Berez lan-hitzarmen profesionala nuen orain, baina hitzarmen berezia denez, aukera bazegoen jokatzeko. Enpresak esan zidan oso positiboa izango zela jokatzeko. Nire aldetik arantza sartuta neukan, Iruñan zilarra eskuratu genuelako eta Mexikon urrea

lortzea nahi nuelako. Ilusioa egiten zidan parte hartzea.

**Esperientziarekin gustura?**

Kirol arloari dagokionez, ez. Hemen oso gustura ari nintzen jokatzeko, txapelketak eta irabazten. Hara joaterakoan, hasiteko, nahiko gaizki zegoen antolakuntza aldetik, frontoia oso txarra, presioa... eta konturatu gabe hemen ematen nuenaren %35a ere ez nintzen ari ematen. Ez nintzen ari gozatzeko.

**Nola izan ziren zuk jokatuak partidak?**

Frantziako selekzioaren kontrara irabazi egin genuen eta ligaxkan lehenengo gelditu gi-

nen. Filipinen aurka finalerdia nahiko justu irabazi genuen, partida erraza izan behar zenean. Presio handia izan zen, ikuslegoa gure kontra zegoen eta iraindu egiten zuten. Finala iritsi zenean nik neuk esan nion hautatzaileari ez nuela jokatu. Ez nintzen eroso sentitzen. Altuerak ere eragina izan zuen. Hiru tantu indartsu egin eta itota sentitzen nintzen. Faktore asko izan ziren azkenean. Kirol ikuspuntutik ez nintzen gustura gelditu, ez nuen erakutsi nire jokoak. Baina, orokorrean, esperientzia oso positiboa izan da.

**Espainiako selekzioarekin**



I. GARCIA

**jokatu beharra nola ikusten duzu?**

Seguraski Espainiako selekzioarekin joan garen asko euskal selekzioarekin joango ginen. Azkenean begiratu behar da gu kirolariak garela. Txikitat-

tik kirol horretan aritzen garela, hortan gozatzen dugula eta aukera bakarra daukagula Munduko Txapelketa batera joateko. Afera politikoa da eta beste leku baten konpondu behar da hori. ◀

**MAIDER MENDIZABAL ETA ITXASO URKIZU** ▶ TRINKETE JOKALARIAK

«Partida gogorra izan zen, ahal genuen guztia egin genuen»

Bederatzigarren Munduko Txapelketa izan da Maider Mendizabal anoetarrarentzat, beti punta-puntan ibili den jokalaria da. Orain, Olinpiar Jokotara joatea luke erronka berria. Itsaso Urkizu berastegiarrentzat, lehen aldia izan da eta oso pozik etxeratu da, maila handiko jendearekin jokatu eta kultura ezberdinetako jendea ezagutzuz, betiko gordeko ditu Mexikoko bizipenak.

**Nola joan zen txapelketa?**

Erraz irabazi genituen Kuba eta Argentinaren aurkako ligaxkak partidak, Frantziaren aurka, ordea, galdu egin genuen, arnasa hartzeko zailtasunak izan baikenituen. Finalaurrea 30-17 irabazi genuen Mexikoren aurka, erraz.

**Eta finala?**

Oso partida gogorra izan zen, 55 minutu izan ziren joko errealekoak eta hori denbora asko da, gainera, asko pilotatu ge-

nuen inork ez baitzuen arriskatu nahi. Maila altuko partida izan zen.

**Irabazten hasita ere 30-28, Frantzia garaile.**

Gogor hasi ginen gu, baina frantsesak pixkanaka tantoak eginez joan ziren eta gu animoa galduz joan ginen. 28-27 irabazten ari ginela bi huts egin genituen. Finala esku-eskura izanda amorratioa ematen du garaipena ez lortzeak, baina bestetik oso gustora gaude. Partida orekatua eta gogorra izan zen eta edozeinek lor zezakeen garaipena. Ahal genuen guztia egin genuen.

**Ezberdintasunik nabaritu duzue beste estatuetakoko pilotariek?**

Entrenamendu aldetik ez dugu alde handirik nabaritu, denok antzera aritzen baikara, jokaterako orduan, ordea, estilo aldetik ezberdintasunak na-



MADDI SOROA

baritu ditugu. Beste estatuetakoko jokalariek frontenisean jokatzeke estiloa mantentzen dute pilota modalitate ezberdinetan, izan ere, herrialde horietan frontenisa baita modalitatekerik nagusia.

**Neska izanagatik tratatu ezberdinik somatu duzue?**

Ez, neskak izanagatik ez. Hala ere, oso ezberdina da trinkete-

an jokatzea edota frontoian. Zoritxarrez, pilotarien artean ranking bat egin du gizarteak. Frontoiko pilotariei ematen zaie garrantzi gehien; izan ere, partidak telebistaz ikusten dira, tartean enpresak daude eta abar. Trinketekoak, ordea, atzean geratzen gara. Alde handia dago eta hori sarrietan ikusten da, esaterako.

**Gusturago ariko zinatekete Euskal Selektioarekin?**

Argi dago denok nahi dugula, baina, gaur egungo egoera politikoarekin oso zaila da hori gertatzea. Bestalde, beste kirolatan ez da ezer gertatzen Espainiako selektioarekin jokatzeagatik baina pilotarioi presio handia egiten zaigu. Guk gure alde egiten dugu. ◀

**JOXI LOPETEGI ETA DAVID VINUESA** ▶ XARE JOKALARIAK

«Zaila ikusten genuen zilarra baina gehiago lortzea»

Zilarrezko domina lortu dute Joxi Lopetegi eta David Vinuesa xare jokalaririk irurarrek. Lehenengoarentzat laugarren Munduko Txapelketa zen nagusietan. Bigarrenagoak lehenengo aldian zuten nagusietan. Biek jolastu zituzten lehiaketako partida guztiak.

**Nola joan ziren Txapelketako partidak?**

Ligaxkan Iparraldekoen aurka galdu egin genuen eta kubatarrei irabazi. Kubako jokalarietako batek bigarren egunean alde egin zuen eta nola bi bakarrik zeuden, ordezkoak beste modalitate batekoak izan ziren, behin ere xarean aritu gabekoak. Iparraldekoen aurka nahiko paretsu aritu ginen partidaren erdialdera arte. Gero 10 tantuko alde hartu zuten eta hor amaitu zen lehia.

**Finalerdia, Argentinarekin.**

Erraz irabazi genien. Hamar tanto bakarrik egin zituzten. Seina joan ginen, baina gero 40ra ia zuzenean egin genuen.

**Diruizenez, Iparraldekoek eta Hegoaldekoek nagusitasun handia duzue.**



MADDI SOROA

Bai, eta guk orain maila baxuagoa daukagu Iparraldekoekin alderatuz. Jende gehiago dago han xarean jokatzen. Hemen Iruran bakarrik jokatzen da eta herri honetatik noizean behin ateratzen dira. Lehen, jende gehiagok jolastan zuten.

Maila altuan hamabi bat lagunek jokatzen zuten. Munduko Txapelketa bat baino zailagoa da Frantziako Txapelketa irabaztea. Munduko Txapelketa, azkenean, Iparraldekoen eta Hegoaldekoen arteko partida bat da.

**Nola joan zen finala?**

Erraz irabazi gintuzten. 40-18 izan zen markagailua. Ligaxkako bikotea baino hobea zena jokatzen zuten, batez ere aurrelaria. Txapelketara joan aurretik zilarra lortzea genuen helburua. Hortik aurrera sor-

presarik lortuz gero, ondo, baina zaila ikusten genuen.

**Zein da egungo xarearen egoera?**

Xarea behehera joan da, baina orain haur asko ari dira ikasten eta espero dugu goraka egitea. Lehen jokalaririk gehiago aritzen ziren Iruran. Gutxienez urte guztian zehar lau lagunek entrenatzen genuen. Orain, entrenamendu batzutan bi lagun bakarrik aritzen gara eta xarean beti laurak jokatzen dituzte partidak. Jendeak xarea ikusten duenean, guztiak «zein polita» esaten dute, baina gero...

**Espainiako selektioarekin lehiatzea nola ikusten duzue?**

Guri gustatuko litzaiguke euskal selektioarekin jokatzea, baina momentuz ez dago Munduko Txapelketa euskal selektioarekin jokatzeke aukera. Espainiak eta Frantziak ez dute hori nahi eta federazio horiek dira boteretsuenak. Bozketan beste federazioek ere euskal selektioaren kontra bozkatzten dute, bi boteretsuen diru laguntzak jasotzen jarraitu nahi dutelako. ◀



**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Anoeta.** Mendi Astearen baitan, Mendiko medikuntza eta mendi sorospenak ikastaroa, 18:30etik 21:00etara, kiroldegian. Izen ematea udaletxean egin daiteke.

**Berastegi.** Muñagorri eskolan, 18:30etik aurrera, odola emateko aukera izango da.

**Ibarra.** Kultur Trukearen baitan, *Yacuyuyari, uretako oroitzapenak* (12 min.) eta *Cotopaxiko Quichua herria* (22 min.) bideo emanaldiak. 19:30ean, Kultur Etxean.

**Orexa.** Agenda 21eko bigarren bilera deitu dute azken hiru gaiak lantzeko. 21:45ean, udaletxeko ganbaran.

**Tolosa.** Oargi elkartearen Mendi Hamabostaldiaren baitan, mendiko materialaren azoka, 18:00etatik 21:00etara. Horrez gain, ikusgai daude Oargin bertan, argazki lehiaketan parte hartu dutenen lanak.

**Tolosa.** Ahotsak Platafomak sinadura bilketa egingo du bihar, 11:00etatik 13:00etara, Triangulo plazan. Bertan, abenduaren 2an Euskalduna Jauregian egingo den ekitaldira joateko antolatuko diren autobusen inguruko informazioa emango dute.

**Villabona.** Aizkardik antolatzen duen Mendizale Astearen baitan, *Euskal Herriko hiriburuak uztartuz* hitzaldia, Aizkardi elkarteak berak eskainia. 20:00etan, Gurea aretoan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
 Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.  
 943 67 09 15.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
 20:00-21:00. *Asteko onena*.  
 21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Txirrinduzaleen topaleku

**ZIZURKIL ▶** Haimar Zubeldia eta Eneritz Iturriagaetxeberria Tourreko lehen txirrindulari euskaldunei omenaldia egingo diete gaur Urkamendi elkartean



Haimar Zubeldia usurbildarrak Tourreko lehen txirrindulari euskaldunaren omenaldia jasoko du. I. GARCIA



Urkamendi elkarteko kideak hamaiketako egiten 25. urteurreneko ekitaldien baitan. NAIARA GARZIA

**ERREDAKZIOA**

**U**rkamendi elkartean ekitaldi garrantzitsuak egiten ari dira egunotan. Orain gutxi, eta elkartearen 25. urteurrenaren ospakizunen baitan, hamaiketako, toka txapelketa, bazkaria eta mus txapelketa egin zituzten. Kide ugari bertaratu ziren eta elkartetik azaldu dutenez, «giro ederra» izan zen.

Bestalde, txirrindularitzarekin zerikusia duen urteroko hitzordua izango dute gaur elkartean: Frantziako Tourreko lehen euskaldunari omenaldia. 21. urtea da egiten dena eta aurten ere Haimar Zubeldia usurbildarrak jasoko du Zizurkilgo txirrinduzaleen omenaldia. Emakumezkoetan, Eneritz Iturriagaetxeberria izango da omendua.

Omenaldia egiten zaien txirrindulariez gain, bi gurpileko kirolarekin zerikusia duten hainbat gonbidatuk hartuko dute parte. Besteak beste, Paco Galdos, Egoi Martinez, Miguel Madariaga, Leire Olaberria, Roberto Laiseka, Marino Lejarrreta eta Txomin Perurena izango dira.

Urtero legez, herritarren artean ere omendurik izango da, nahiz txirrindularitzarekin zerikusirik ez izan. Horrela, aurren Aitziber Ibarbia, Iñaki Urkola eta Kandido Aizpurua mendizaleak omenduko dituzte. Hirukote honek udan Gascherbrum II zortzimilakoa igo zuen.

Ekitaldia 21:00etan hasiko da, omenaldiarekin. Ondoren afari eder bat egingo dute eta, amaitzeko, sari banaketa.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Maria Telletxea (Orendain).  
 Zorionak amona, zure biloba Nerearen partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leiztan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...